

**TEKNIKERren 40.URTEURRENA**  
**40 ANIVERSARIO DE TEKNIKER**

2021-11-24 Eibar 24-11-2021

*Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari*

Diputatu Nagusi jauna, Eibarko Alkatea eta zuekin batera zaudeten bai sailburu, foru diputatu, zinegotzi eta Euskal Herriko Unibertsitateko errektore andrea, TEKNIKER-en arduradunok, enpresetako ordezkariok, jaun andreok, egun on. Eskerrik asko zuen gonbidapenagatik.

Nire lehen hitzak TEKNIKER-en lau hamarkadetako jarraipena ahalbidetu duten pertsona guztien lana eta ekarpena aitortzeko dira.

Lehenik eta behin, ikerketa teknologikoko zentro aitzindari hau abian jartzeko ikuspegia izan zuten pertsonak, Iñaki Goenaga buru zutela. Horrekin batera, enpresa eta industria berrien eskakizunei egokitzen eta erantzuten jakin izan dutenei ere gure esker ona. Beraien artean aurten bertan hil den Alex Bengoa dugu denok gogoan.

Bestetik, gure esker ona ere etorkizunari begirada berri hau bultzatzen ari zaretenoi, etengabeko berrikuntzaren aldeko apustua eginez. Eskerrik asko Jesus Iriando, presidentea, eta Luis Uriarte zuzendari nagusia, etengabeko hobekuntzaren bidetik aurrera egiten jarraitzeagatik.

Gracias por ofrecernos la oportunidad de conocer, de primera mano, los proyectos de futuro de TEKNIKER.

Hemos visitado los laboratorios y los talleres, hemos conocido los proyectos de automatización y robótica. Hemos comprobado que mantenéis el mismo espíritu avanzado, pionero y de vanguardia que animó la puesta en marcha de este Centro hace 40 años.

Cuando la industria decaía, cuando la tecnología era cuasi artesanal, cuando la innovación respondía a un impulso personal, un grupo de profesionales asumió el reto de poner en marcha TEKNIKER.

Hoy reconocemos aquel primer impulso de Iñaki Goenaga. Recordamos también al recientemente fallecido Alex Bengoa. Tanto ellos, junto a sus equipos, representan el “espíritu TEKNIKER” al que estáis dando continuidad:

- cercanía y diálogo con las empresas para responder a sus necesidades;
- búsqueda de soluciones tecnológicas e innovadoras aplicadas; y

-vocación global.

Este espíritu de mejora continua mantiene a TEKNIKER en la vanguardia de los Centros tecnológicos y de investigación, con un gran reconocimiento por parte del tejido productivo e industrial.

Estáis sabiendo adaptaros a los nuevos requerimientos y demandas de la industria verde y digital, de la economía circular, de los servicios avanzados.

Etorkizunari begira aitzindaritzza mantendu behar dugu. Berrikuntzaren bidean aukera paregabe bat dugu. Aurten bertan, 2030erako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana onartu dugu.

Gure helburua da, berrikuntzaren arloan, Euskadi Europako eskualde aurreratuenen artean kokatzea.

Estrategia bera partekatzen dugu bikaintasun zientifikoa, lidergo teknologiko industrial eta berrikuntza irekia bultzatzeko, baita talentua sustatzeko eta erakartzeko helburua ere.

Enmarco este aniversario en vuestra voluntad de innovación permanente y de anticipación a las necesidades futuras. Este mes habéis presentado soluciones de aplicación de inteligencia artificial a problemas tan diversos como la optimización de equipos industriales, el uso de energías renovables, el cultivo del plátano o la gestión de piscinas. Seguíis a la vanguardia de soluciones tecnológicas prácticas.

Esta década va a marcar, posiblemente, un nuevo salto tecnológico disruptivo en todo el mundo. Gracias a Centros tecnológicos como TEKNIKER tenemos la seguridad de que Euskadi, una vez más, será capaz de responder a este desafío.

Nuestro objetivo es situar a Euskadi entre las Regiones europeas más avanzadas en innovación, con un elevado nivel de vida y calidad del empleo.

Erronka eta helburu hauek partekatzen ditugu.

Zorionak TEKNIKER eta jarraitu dezagun Teknologiaren eta Ikerketaren bidez aukera berriak eskaintzen eta eraikitzen.

Eskerrik asko eta urte askotarako!